



Gipuzkoako Bazkondeak Poloniara joateko Misio komertziala antolatu du

- Hamalau enpresek parte hartuko dute, horietatik 6 gipuzkoarrak.
- Misio komertziala martxoaren 11 eta 15a bitartean egingo da.

Donostia, 2013ko martxoaren 8a. Poloniako misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, nahiz eta Eusko Ganberak-en jarduera bat izan. Era beran, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lagundutako ekintza bat da.

Misioa, kontsumo produktuak eta industria ondasunak fabrikatzen dituzten euskal enpresei zuzenduta dago, eta martxoaren 11 eta 15a bitartean egingo da.

Hamalau enpresek parte hartuko dute, 6 gipuzkoar, 6 bizkaitar, arabar 1 eta baita alacanteko 1 ere. Misio honen helburua euskal enpresak Poloniako enpresekin kontaktuak lortzea da, hemengo enpresak Poloniako merkatuan sartu ahal izateko.

Polonia

Polonia, manufaktura-industriaren produkzioarako merkatu erakargarria da, bertan dituzten soldata baxuei esker, bertako langileen prestakuntzari esker eta Gune Ekonomiko Bereziakoko produkzioan dituzten abantaila fiskalen eskaintzari esker.



Nazioarteko krisiak herrialdean izan duen eragin eskasak kontsumo pribatuak barruko eskaera mantendu ahal izatea lortu du, hau hazkundearen motorra bihurtuz. Era berean, 2009 urte arte erosteko ahalmenak izan duen hazkundera eta langabeziaren jaitsierak, inbertsioarako aukera duten erdi-mailako hiritarrak ager arazi ditu, hiri handietan batez ere.

Poloniako esportazio eta inportazioei dagokionez, izaera "intraindustrial" bat dutela esan daiteke, industria sektoreko multinazionalak (automobilgintza, kimika, hegazkigintza etb.) herrialdean duten presentzia indartsuagatik.

2011ean, Poloniako esportazioko sektore garrantzitsuenak semifakturak izan dira (% 26), ekipo ondasunak (%25,6), automobilgintza sektorea (% 12,9) eta kontsumorako ondasun iraunkorrak (% 11,1). Elikagaien esportazioak, bostgarren lekuan mantendu dira (% 10,7). Inportazioko sektore garrantzitsuenak berriz, ekipo ondasunak izan dira (%28,1), ondoren semifakturak (%27,4), kontsumoko manufakturak (%8,1), elikagaiak (% 7,7) eta automobilgintzaren sektorea (% 7,5).

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

Tfno: 943 000 310 / Móvil: 688884347